



OSASUN SAILA

Administrazio eta Finantzaketa
Sanitarioko Sailburuordetza
Farmazia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO SALUD

Viceconsejería de Administración
y Financiación Sanitarias
Dirección de Farmacia

Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bitartez farmazia bulegoak sortzeko lehiaketarako eskabidea bete eta dokumentazioa eransteko jarraibideak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 29an.



1. HITZAURREA

Urtero eta farmazia-eskualdeen eta osasun-eskualdeen araberako biztanleria-banaketari buruzko egoki diren kalkuluak egin ondoren, Osasun Sailak urteko lehen seihilekoan erabaki behar du Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) farmazia-bulego berriak irekitzea egokia den ala ez.

Farmazia-bulego bat edo batzuk irekitzea egoki bada, titulartasunaren esleipena helburu horretarako sortutako Balorazio Batzorde batek aztertzen duen merezimendu-lehiaketa baten bidez egiten da.

2. OINARRI ARAUEMAILEA

1. 11/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikorako dena,
2. *338/1995 Dekretua, ekainaren 27ko farmazia-bulegoak sortzeko, lekualdatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen. 24/2004 Dekretuak, otsailaren 3koak, aldatua.*
3. 24/2004 Dekretua, otsailaren 3koa, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.
4. Agindua, 2018ko apirilaren 20koa, Osasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-eremuak zehazten dituen.
5. Agindua, 2019ko ekainaren 21ekoa, Osasuneko sailburuarena, farmazia-eremuak zehaztu eta sailkatzen dituen, farmazia-eskualde bakoitza zer udalerrik osatzen duen adierazita.


3. EGOITZA ELEKTRONIKOKO WEB-FORMULARIOA BETETZEA

Farmazia-bulegoak sortzeko lehiaketan parte hartzeko eskaera modu elektronikoa izapidetzeko, beharrezkoa da **identifikazio elektronikoko bitarteko bat edukitzea**. Hautagaiek Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak onartutako edozein ziurtagiri elektronikoa erabili ahal izango dute. Onartutako ziurtagiri elektronikoa esteka honen bidez kontsultatu ahal izango dira:



<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Eskaeraren formularioan, goiko aldean, adierazitako urratsak jarraituz osatu behar da. Ezin izango da urrats batetik hurrengora joan aurrekoa osatu ez bada:



Eskabidea bukatu ez baduzu, kargatutako datuak gorde ahal izango dituzu eta, beste une batean, izapidearekin jarraitu.

Izapideak egiteko gehieneko epea mugatua da. Horregatik, komenigarria da aldez aurretik **formatu digitalean prestatutako dokumentazio guztia** edukitzea. Dokumentazio hori formularioko hirugarren urratsean erantsi beharko da, eta aurrerago zehaztuko da nola aurkeztu beharko den.

1.Urratsa. Identifikatu

Bi farmazialarik lehiaketan eskaera bakar baten bidez parte hartzea aukeratzen badute, adierazi behar da **eskaera elektronikoki sinatu duen farmazialaria farmazialari eskatzaile gisa agertuko dela, eta bestea, berriz, bigarren farmazialari interesdun gisa. Lehenengo eskatzaileak jakinarazpenak jasoko ditu eta formularioan eskatutako izapide guztiak egingo ditu, bien ordezkari gisa. Horri dagokionez, adierazi behar da bigarren eskatzaile interesdunaren datuak hasierako identifikazio-pantailan jasoko direla (eskaera batean interesdun bat baino gehiago agertzen direnean, erator litezkeen ekintzak, lehenengo interesdunarekin egingo dira»; 39/2015 Legea, 7. artikulua, "Hainbat interesdun egotea).**



2. Urratsa. Datuak betetzea

Datu orokorrak sartu ondoren, **bigarren urratsa** eskabide-digitala betetzea da, merezimenduak alegatzeko, aipatutako 24/2004 Dekretuaren arabera.

Egun berean farmazia-bulegoak sortzeko zenbait prozedura hasten badira, eta eskatzaileak prozedura horietako batzuetan parte hartu nahi badu, bigarren eskabidean eta hurrengoetan ez du egin beharko aurkezteko baldintzei eta merezimendei buruzko erantzukizunpeko adierazpenik. Era berean, ez du horri buruzko justifikazio-dokumentaziorik aurkeztu beharko.

Hala ere, farmazia-bulego bakoitza administrazio-prozedura bereizi bat denez, dagokion **izapidetze-tasa ordaindu beharko da eta hura ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztu** beharko da web-formularioaren hirugarren urratsean.

3.Urratsa. Dokumentuak eranstea

Hirugarren urratsean erantsi beharreko dokumentu digitalizatuen kopurua bigarren urratsean alegatutako merezimenduen arabera izango da.

Merezimenduak egiaztatzeko dokumentu digitalak otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuan jasotako merezimenduen baremoaren arabera sailkatu eta ordenatu beharko dira (24/2004 Dekretua, otsailaren 3koa, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena)

Eskabidea errazago egiteko, **komeni da eskatzaileak edo eskatzaileek baldintzak eta merezimenduak egiaztatzeko dokumentazio digitala dagokien web-formularioaren atalaren izenaren arabera biltzea**. Eskatzaileak bere baldintza eta merezimenduen arabera dagokion dokumentazioa baino ez du aurkeztuko. Era berean, atal bakoitzaren barruan,



ematen den informazioak taula honetan zehazten den ordena gordetzea gomendatzen da:

Dokumentu digital bakoitzaren barruan dokumentazioa aurkezteko nomenklatura eta ordena, web-formularioaren atalaren arabera.
<p>1-Farmazialari eskatzailearen egiaztapena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lizentziatu titulua/gradua • Elkargokide-txartela
<p>2- Tasa ordaindu izanaren egiaztapena</p>
<p>3- Farmazia-bulego baten titulartasunarekiko harremana</p> <ul style="list-style-type: none"> • Farmazia-bulegoa ixteko konpromisoa • Eskualdatzearen egiaztapenak*
<p>4.- Lanbidean jardutea</p> <ul style="list-style-type: none"> • LBT- Lan-bizitzari buruzko txostena. • Dagokion Farmazialarien Elkargo Ofizialaren ziurtagiria, EAetik kanpo aritu bada.
<p>5.- Irakaskuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Farmaziako lizentziatura edo graduoko praktiketako tutorearen unibertsitate-ziurtagiria • Osasun-zientzien arloko katedradun edo irakasle titularraren unibertsitate-ziurtagiria • Azken 10 urteetan arreta farmazeutikoarekin zerikusia duten eta Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak egiaztatutako ikastaroetako irakaslea.
<p>6.- Argitalpenak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Farmazia-arretarekin lotutako liburua argitaratzea azken 10 urteetan. • ISSN kodearekin identifikatutako aldizkariko farmazia-arretarekin lotutako artikulua argitaratzea azken 10 urteetan • ISSN kodearekin identifikatu gabeko aldizkariko farmazia-arretarekin lotutako artikulua argitaratzea azken 10 urteetan • Ponentzia, posterra edo ahozko komunikazioa bilera edo biltzar zientifikoetan.
<p>7- Graduondoko prestakuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tesina edo gradu-azterketa • Ikasketa aurreratuen diploma • Doktoretza-gradua • Unibertsitateko berezko tituluak • Ospitaleko Farmaziako farmazialari espezialistaren titulua • Industria Farmaziako eta Farmazia Galenikoko titulu farmazeutiko espezialista. • Sendagaien eta Drogen Anlisi eta Kontroleko farmazialari espezialistaren titulua • Beste modalitate batzuetako farmazialari espezialista titulua • Arreta farmazeutikoarekin lotutako gai buruzko ikastaroak, Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak egiaztatuak, azken 10 urteetan egindakoak.



Dokumentu digital bakoitzaren barruan dokumentazioa aurkezteko nomenklatura eta ordena, web-formularioaren atalaren arabera.

8- Euskara eta hizkuntzak

- Atzerriko hizkuntzako hizkuntza-gaitasunaren ziurtagiria
- Interesdunaren euskara eta EBko hizkuntzak

9- Interesa duen bigarren farmazialariaren ordezkari-tza egiaztatzen duen dokumentazioa**

* Eskatzailea farmaziako titularra izan den eta azken 12 hilabeteetan bere farmazia transmititu duen.

** Bigarren eskatzailearen ordezkari-tza (biek sinatutako idazkia eta bien NANen kopia eskaneatua).

Adibidea: irakaskuntzaren atalean merituak dituen baina osasun-zientzien arloko katedradun edo irakasle titular gisa meriturik ez duen eskatzailea

- . Dokumentu digitalaren izena: "**5-Irakaskuntza.pdf**"

- . Dokumentuen ordena, "**5-Irakaskuntza.pdf**" -en barruan:

1. Farmaziako lizentziatura edo graduko praktiketako tutorearen unibertsitate-ziurtagiria
2. Azken 10 urteetan arreta farmazeutikoarekin zerikusia duten eta Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak egiaztatutako ikastaroetako irakaslea

4. Urratsa. Sinatu eta bidali

Azkenik, eskabidea digitalki sinatu eta bidali beharko da. Gomendagarria da bidalketaren egiaztatagiri digital bat gordetzea; nolana ere, adierazi behar da eskabidearen ondorengo izapideak egoitza elektronikoan egingo direla, **euskadi.eus/Micarpeta bidez.**